

Ez dakit



Karlos Gorrindo

IDAZLEA

@kgorrindo

Nik ez dakit Durangoko Azokak mozkinik eman dien bertan aurkeztu diren enpresa kulturaleri. Liburu eta disko asko saldu dituzten. Adinaren diskrezioan azokara hurre-ratu diren idazleak gai izan diren zutik irauteko, ordu luzeen osteak gerriko hezurdura lekutik aterata, eta gero, etxera itzuli diren aieneka, eta eskumuturra dislokatuta bakoitzaren liburu eskainian zirriborro ikasiak egin eta gero.

Ez dakit gure Toti koitaduaren errukirik izan duten horren lanen zaleek eta jaleek, ilara amaigabeetan itxaroten egon eta gero, aurrez aurre autore izarraren irribarre fotografikoaz gain, liburu gogokoena besapean hartutakoan, etxera bueltatu direnean.

Ez dakit euririk egin behar ote duen azoka gunea jendez gainezka jartze-ko, euritik babes bila bertaratu behar izanda, edo on-lineko erosketez baliatu diren, Espainia aldeko edozein hondartza epeletan sabela gora egon bitartean, eta Durangon gogoa.

Ez dakit Gernika-Lumoko urriko azken astelehenean bezala, Durangokora batu diren saltzaileek, ekoiztuaren edertasuna erakustez gain, malabarismo linguistikorik erabili ote duten, hainbeste neke eragindako produktua saldu ahal izateko.

Dakidan bakarra da Durangoko Azokak gurdi bete diru eman duela ikuspuntu gastronomikotik. Eta hau ere kultura da. Kulturala izateaz gain


Ez dakit erosgaiak berak berez saltzeko gaitasunik ote duen, edo artista kontzeptualak legez, artelanaren gaineko azalpenak eman behar izan dituen, salgaia ulertu, erakargarri bilakatu eta erosteko interesgarri egiteraino (Ferre-ro Roche batek lagun lezake erosgai-az

gozatu eta irakurraldia ezititzeko, autorearen mezu iradokitzaileak balekoak izan ezean).

Ez dakit Durangoko Azokara hurre-ratu direnak, erosgaia eskuan hartu, usaindu, aurretik eta atzetik aztertu, eta Paulov-en txakurren antzera hasi diren aho-zuloaren kanpoaldeko ezpain ertzetik behera adurretan, ase eta bete geratuko direlakoan.

Dakidan bakarra da Durangoko Azokak gurdi bete diru eman duela ikuspuntu gastronomikotik. Eta hau ere kultura da. Kulturala izateaz gain. Euskal Herria berez ongi jaten den tokia dela aitortuta dago, Mitxelín izarrak ez baitira korroskada ozenena botatzeagatik ematen edo uzkiarekin litro bete ur xurgatzearen abilitate xurgatzaile izateagatik, bazka ona, egokia, ugaria, anizduna, kalitatezkoa eta oso garestia ematen dutelako baizik.

Eta dakidan bakarra da osagai kultural gastronomiko honetaz azoka aldian atseginik hartu nahi izan baduzu, izenik edo izarrik edo hauei itzalik egin nahi-ko liokeen edozein jatetxetan, jai izan duzula. Liburu eta disko kulturaren orde, gastronomikoa gailendu zaiolako. Ahoak gozamen gehiago hartzen du begiak baino. Gora kultura. Gora Durango. Biba fandango. ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com